


Norena da Taiwan?



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Taiwan, K.a. 323. urtea. Txinako espedizio batek uhartea esploratu zuen eta, hala, Taiwan lehenengoz erregistratuta geratu zen txinatar artxi-boetan. Baina mende luzez ez zen bertako jatorrizko populazioan aldaketa nabarmenik izan; uharteko giza arrastorik zaharrenak duela gutxienez 20.000 urtekoak izan arren, austronesiar nekazariak duela 6.000 urte okupatu zuten.

XVII. mendean iritsi zen populazio aldaketa, europarrekin batera. Portugaldarrek Formosa izena jarri zioten, espainiarrek irlaren iparraldean hainbat kolonia ezarri zituzten eta 1624tik 1662 arte herbehere-tarren esku egon zen. Orduan, txinatarrek kanporatu zituzten europarrak Taiwanetik. Eta 1683an Qing dinastiak Ming dinastia mendean hartu zuenean, Taiwan ofizialki Txinaren esku geratu. Prozesu horretan, Txina kontinentaleko asaldura politikotik eta eskasia ekonomikotik ihesi, txinatar oldeak Taiwanera joan ziren, eta austronesiar populazioa ia desagerrarazi zuten. Nagusiki Fujian probintziako hokloak eta Kantongo hakkak ziren; Taiwan-ko egungo biztanle gehienak bi migrazio olde horien oinordekoak dira.

1895an, Txinak lehen gerra sino-japoniarra galdu ondoren, uhartea irabazle japoniarren esku geratu zen. Baina Bigarren Mundu Gerraren amaieran Txinara itzuli zen; Txinako Errepublikak, 1912an sortua, aliatuen parte zen eta, beraz, AEBen oniritzia izan zuen. Baina handik urte gutxira, 1949an, Mao Zedong buru zuten indar komunistek




ANN WANG

Chiang Kai-sheken gobernua mendean hartu zuten. Chiangek eta bere jarraitzaileek Taiwanen hartu zuten babesa eta uhartean Txinako Errepublikaren jarraipena ezarri zuten, diktaduraren jarraipena, alegia. Txinako Herri Errepublikak uhartea erreklamatzeko jarraitu zuen eta AEBetako presidente Trumanek zazpigarren flota Taiwango itsasartera eramatea erabaki zuen, teoriarik Txina kontinentalaren eta Taiwanen arteko gatazka saihesteko. Praktikan, interbentzioak ez zuen gerra zibila eten eta, besteak beste Izu Zuria bultzatu zuen: Taiwango Gobernuak 140.000 pertsona espetxeratu eta hil zituen, komunista izatea leporatuta.

Mende honetako Taiwango hauteskundeak emaitzek eragina izan dute

Txina-Taiwan aferan. Duela bi asteko hauteskundeak Txinarekin bat egitearen aurka dagoen PPD alderdiak irabazi zituen. Lai Ching-te hautagaiak independentziaren alde lan egingo duela aginduta, Txinako Gobernuarekiko tentsioa areagotu egin da, interbentzio militar baten mehatxuarekin batera.

Taiwanen eta AEBen arteko itun formalik ez dagoen arren, eta ofizialki Taiwanen independentziaren alde ez dagoela esanda ere, Washingtongo gobernuak adierazi du arma defentsiboak utziko dizkiola Taiwanari. Joe Biden presidenteak esan du AEBek Taiwanetikiko duten konpromisoa "harria bezain tin-koa" dela, nahiz eta azken 80 urtetan uhartearekiko jarrera nahi bezala ego- kitu duten, kontraesanak kontraesan. ●



A. DORISON / S. ROSTAIN

Orellanak arrazoi zuen

XVI. mendean Francisco de Orellana espainiar konkistatzaileak Amazonas ibaian gora nabigatu zuenean, ibaiaren alde banatan hiri handiak zeudela esan zuen. Inork gutxik sinistu zion orduan, eta are gutxiago hurrengo mendeetan, konkistak berak suntsitutakoaren arrastorik aurkitu ez zenean. Baina Stéphen Rostain arkeologo frantziarrak Ekuadorreko Ama-

zonian aztertu du azken urteota, LiDAR teknologia erabiliz, eta emaitza *Science* aldizkarian argitaratu berri du: 6.000tik gora plataforma eta egitura identifikatu ditu, "errepide" sare zabalaren bidez lotuak, eta drainatze-sistema konplexuak erabiltzen zituzten labore lurrez inguratuak. 15 hiri identifikatu ditu guztira. Beraz, konkistatzaileak arrazoi zuen. ●